

# Euskal zinema, oparo eta mamitsu

## JULEN NAFARRATE AURREKOETXEA

Zinemira sailean bederatzik filmek parte hartuko dute Zinemaldiaren edizio honetan. Aurten sail honetako film guztiak dokumentalak izango dira, eta horietako zortzik mundu mailako estreinaldia izango dute Donostian. Hortaz, zortzi film horiek Euskal Zinemaren Irizar Saria irabazteko hautagaiak izango dira, Sail Ofizialeko *Soy Nevenka* (Iciar Bollain) eta New Directors saileko *Azken erromantikoak* (David Pérez Sañudo) lanekin batera. 20.000 euroko saria izango dute zain.

Raúl de la Fuente zuzendariaren *Los Williams* lanak emango dio hasiera Zinemirari, gaurko inaugurazio ekitaldian bertan. Film luze dokumental honek futbola eta migrazio-istorioak elkartzen ditu, Iñaki eta Nico Williams Athleticeko jokalariei eta anaien bizitza oinarri hartuta. Azken edizioetan De la Fuentek hainbat lan aurkeztu ditu Zinemaldian, eta 2018. urtean Publikoaren Saria irabazi zuen *Un día más con vida* (Perlak) lanari esker.

Aurten Zinemiran hiru lan izango ditugu euskara hutsean. Pello Gutiérrez Peñalbaren *Erreplika* filmak Zikuñagako Amaren desagerepenaren istorio bitxia kontatzen du. Misterio horrek Hernanin zalaparta handia sortu zuen, denon ahotan dagoen sekretua bihurtu den arte. Naia Lakak zuzendutako *Zortzitik infinitura* dokumentalean Benito Ansola zinemagile lekeitiarrak egindako lana aitortzen da, Miren Agur Meabe idazlearen eskutik. Ansola Euskal Zine Bileraren sortzaileetarikoa bat izan zen eta Euskal Herrian herriz herri ibili zen zine forumak dinamizatzen eta euskarazko zinema bultzatzen. Azkenik, *Indarkeriaren oi(h)artzunak* lanean Amaia Merinok eta Ander Iriartek Tamara Muruetagoinaren kasua dute hizpide, Estatuak haren aita Es-



teban torturapean hil zuenetik 40 urte betetzen direnean. Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian estreinatu zen –horregatik ez da hautagaia Irizar Saria jasotzeko– eta bertan harriera bikaina jaso zuen, Publikoaren Saria eskuratuz.

Beren lehenengo ikus-entzunezko lana aurkeztera ere etorriko dira hainbat zinegile Zinemira sailera. Horren adibide dira, Nere Falagan eta Jone Ibarretxe bizkaitarrak, *Hau ez da Hollywood (Ibarretxe anaien amaitu gabeko istorioa)* lanarekin. Ibarretxe anaiak aitzindariak izan ziren Euskal

## Zinemirako bederatzik filmetatik zortzi munduko estreinaldiak izango dira

Herrian, zine bihurri eta umoretsua egin zutelako, baina beti ere beren izaerari uko egin gabe, merkatuaren arauetara egokitu barik.

Aurten 40 urte beteko dira *La Bola de Cristal* telebista programa ezaguna hasi zenetik, eta *Los poderes de Lolo* (Itziar Bernaola Serrano, Miguel Alba Rico eta Nino Fontán Allen) filmak Lolo Rico programaren sortzaile eta arima izan zenaren istorioa kontatzen du. Inguru kontserbadore batetik ihes egin eta Ricok gizarteak ezarri nahi zizkion arauak hautsi zituen.

Bilbo eta La Habana artean gauzatzen da Ernesto del Rio zuzendariaren *Ese mundo que no te nada* film luzea. Del Rio emakume eta gizonen arteko harremanen zailtasunak kontatzen ditu, egoera politikoa eta prekaritate ekonomikoa testuinguru moduan hartuta.

Jone Laspiurren begiradapean, *Ciento volando* (Arantxa Aguirre) filma Eduardo Chillida eskultore ezagunaren lanera gerturatuko da. Chillida Lekun bertan hainbat elkarriketa eginez, artista donostiarraren ibilbidea aztertuko du, ertz eta ikuspegi ezberdinetatik.

Zinemira oso proposamen bereziarekin amaituko da: Carmen Chaplin zuzendariaren *Chaplin espíritu gitano*. Bertan, Charles Chaplinen jatorri erromani edota ijitoa azaleratzen da, modu esklusiboan lan honetarako lortutako irudi eta elkarriketetatik abiatuta. Lan hau izango da klausura ekitaldiko filma.

Guztira 20 obra –15 film luze, hiru telesail eta bi film labur– izango dira Zinemaldiaren 72. edizioeko euskal partaidetza osatuko dutenak, eta, Zinemiraz gain, ia sail guztietan programatuta egongo dira: Sail Ofiziala, New Directors, Zabaltegi-Tabakalera, Perlak, Nest, Culinary Zinema, Made in Spain, Belodromoa, Haurrentzako zinema eta EITB Gala.



## Elena Irureta ezinbestekoa, Zinemira Saria

Edizio honetako Zinemira Saria Elena Irureta (Zumaia, 1955) aktore, zuzendari eta gidoigileak jasoko du, Zinemaldia eta EPE-IBAIA ekoiztetxe-elkarrearen eskutik. Iruretak ibilbide luzea egin du euskal zinemagintzan, telebistan eta antzerkigintzan, eta bere lana aitortzeko saria Euskal Zinemaren Gala Handian jasoko du, irailaren 24an Victoria Eugenia Antzokian.


Antzerki Arte Dramatikoko Eskolaren lehen promozioan diplomatu zen Donostian, eta bere lehen lanak antzerkiari lotuta egon ziren. ETBren sorrerarekin ere, *Bi eta bat* eta *Jaun ta Jabe* telesailetan parte hartu zuen, besteak beste. *El Comisario* telesaillean hamaika denboraldi egin zituen, 1999tik 2009ra. Zinemagintzari dago-kionez, 30 film baino gehiagotan parte hartu du, tartean, euskarazko pelikula esanguratsu askotan: *Aupa Etxebeste!*, *Zorion Perfektua!*, *Urte berri on, amona!*, *Igelak* eta *Agur Etxebeste!*. Platino Saria, José María Forqué Saria eta Feroz bat irabazi ditu *Patrician* egindako lanagatik. Aktore gisa ez ezik, Iruretak gidoi-idazketan ere egin du lan.




## Próximamente en cines

PRÍNCIPE · TRUEBA · ANTIGUO BERRI

Sade  
Cines




**Emmanuelle**  
29 sep 2024



**The Substance**  
11 oct 2024



**Emilia Pérez**  
5 dic 2024



**Ainda Estou Aquí**  
Próximamente



**Memorias de un caracol**  
Próximamente